



BGA-k ekimen indartsua iragarri du datorren ekainaren 14rako. "Gazte Eguna"-z gozatzeko aukera izango dute bi asteburu barru adinez zein bihotzez gazte diren guztiak. Lehengo aurkezpen publikoa Beurko institutuan burutu zuten gazteen bozeramaleek maiatzaren 29an, jendez gainezka zegoen ikasgela batean. Jarraian BGA-ko kideek igorritako oharra topatuko duzue. Ekaitzaren ostean etorri ohi da barealdia. PNVren polizia politikoak gure kideak bahitu zituenetik hilabete igaro denean, inoiz baino argiago dugu zein den bidea: lanak eta borrokak egin dute posible, egun, Gazte Asanblada indartsua izatea eta horrela izango da aurrerantzean ere. Kolore desberdineko txakur guztiak ekarrita ere, ez dugulako pausu bakar bat bera ere atzera egingo. Gazte Eguna horren lekuko izatea espero dugu.

Ekainaren 14a indarrak batzeko eguna da, sistema ekonomiko itogarri eta bi estatu zapaltzaileei zer garen adierazteko eguna. Horretarako egitarau zabala osatu dugu hala Barakaldoko, nola Euskal Herriko azken muturreko gazteontzat. Hain egin seinalaturako abestia ere egin dugu, letra hemen duzue baina entzun nahi baduzue... zatozte Gazte Egunera!

**Kalea geurea da!**

**Barakaldo, gaztea, gorria eta askea!**

**"Gazte Eguna"-k kanta propioa izango du**

Aurtengo "Gazte Eguna" ederki ornitua datorkigu, izan ere BGA-ko kideek kanta bat sortu dute egunerako. Oraingoz ezin dizuegu gehiago aurreratu baina hasteko hemen dituzue kantaren zenbait pasarte. Abestia oso osorik Gazte Egunean bertan burutuko duten aurkezpenean ezagutu ahal izango duzue. Bitartean honatx aurrerapentxo...

Makro-kuartela edo Megapark,  
beste aldean Max Center.  
Merkatu gune, merkatu kume  
Barakaldon hainbat bazter.  
Guztiok pozik telebistako  
pantaila lauari esker.  
Sentiarazten gaitu aberats  
baina ez daukagu ezer.

Gure herria beti b  
gris  
ustelkeriaren ka  
Gazte guztio  
eskubideen  
lepotik diru uga  
Berdin zipaio, be  
banketxe  
eta berdin agint  
Gazteak egin na  
gaituztela  
Sistemaren zerbit

Antolakuntza eta b  
gazteok: askatas  
Egin dezagun kalea  
irrintzien erresu  
Kale gorria, kale a  
feminista, euskald  
Olatu gazte, olatu  
Gazte guztion egi

